



UDALBATZAK 2007KO ABENDUAREN 21EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION
AKTA

Errenteriako Udaletxeko areto nagusian, bi mila zazpiko abenduaren hogeita bateko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Jesus OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ETXARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CERREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- M^a Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe Mari BURGOS VIÑARAS

Era berean, bertan dago udal kontu-hartzaile Jose M^a Arenzana Garcia jauna.

Bertan dago, egintzaz fede emateko, idazkari nagusi Francisco Javier Lesca Ezpeleta jauna.

1. Posta, erabaki ofizialak, auzitegien epaiak eta Lehendakartzaren kudeaketak.

Idazkariak jakinarazi du Estatistika Instituto Nazionalaren proposamena Gobernuak onar dezan bideratuko duela. Bertan, Errenteriak 2007ko urtarrilaren lean 38.336 biztanle dituela adierazten da, eta horrek esan nahi du 2006ko urtarrilaren lekiko igo direla. Izan ere, orduan 37.853 biztanle baitziren.



2. Alkateak emaniko ebazpenen (1407 zk.tik 1509 zk.ra), zinegotzi ordezkariak (2626 zk.tik 2808 zk.ra) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri ematea.

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (1407 zk.tik 1509 zk.ra), zinegotzi ordezkariak (2626 zk.tik 2808 zk.ra) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Alkatetzak 2007ko abenduaren 4an eginiko idazkiaren berri ematea, aurrerantzean Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldearen Udaleko bozeramailea Jesus Oficialdegui Ruiz jauna izango dela adierazteko.

Alkatetzak, 2007ko abenduaren 4an, eginiko idazkiaren berri eman du. Bertan, aurrerantzean Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak zinegotzi taldearen bozeramailea Jesús Oficialdegui Ruiz jauna izango dela jakinarazten da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Proposamena: Udalari atxikitako hainbat organoetan Udalbatzako lehengo ordezkariak ezeztatzea eta berriak izendatzea.

Barne Antolaketako Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Angulo jaunak (Oreretako EAE/ANV) adierazi du euren ustez hauteskundeetako emaitzak hartu beharko lirakeela kontuan eta, ondorioz, ordezkariak, informazio-batzordeetan egiten den moduan, talde politikoek duten ordezkariaren arabera izan beharko lukete izendatuak, azken finean herritarrek hola bozkatu dutelako. Bere aburuz ez da logikoa ez etikoa, ez demokratikoa eurek 6 ordezkariak izanik holako organoetan inolako ordezkariarik ez izatea, eta esaterako, EAK zinegotzi bakarra izanik besteak baino gehiago izatea.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez haren iritzia oso errespetagarria dela, baina proposatzen dena etikoa eta demokratikoa dela, nahiz eta EAEko bozeramaileak bestelako iritzia eduki. Eta demokrazia-jokuaren barruan sartzen denez, hauxe da proposatu eta bozkatuko den kontua, gaineratu du.

Mintzaldiak amaitutakoan.



Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PN, EA, PP), 6 boto aurka (Oreretako EAE/ANV) eta 2 abstentzios (Ezker Batua-Berdeak),

E R A B A K I D I

1. Baliogabetzea ondorengoa:

San Markos Mankomunitaterako:

Bokalak:

- Jose Miguel Golmayo Gauna

Ordezko bokalak:

- Joseba Etxarte Martin

Añarbe Mankomunitaterako:

Bokalak:

- Joseba Etxarte Martin

Ordezko bokalak:

- Jose Miguel Golmayo Gauna

2. Ondoko izendapenak egitea:

San Markos Mankomunitaterako:

Bokalak:

- Joseba Etxarte Martin

Ordezko bokalak:

- Jesús Oficialdegui Ruiz (Joseba Etxarte Martin jaunarena)

Añarbe Mankomunitaterako:

Bokalak:

- Joxe Mari Burgos Viñaras

Ordezko bokalak:



- Joseba Etxarte Martin (Joxe Mari Burgos Viñaras jaunarena)

3. Erabaki honen berri ematea goian adierazitako erakundeei, hain zuzen jakiteko eta eragin beharreko ondorioak eragiteko.

5. Diputazio plazan egunkariak eta aldizkariak saltzeko kioskoa jarri eta ustiatzeko emakida esleitzea.

Udalbatzak 2007ko urriaren 26an eginiko osoko bilkuran onartu zuen abian jartzea Diputazio plazan egunkariak eta aldizkariak saltzeko kioskoa jarri eta ustiatzeko emakida kontratatzea.

Proposamenak egiteko garaian bostek (5) aurkeztu dute. Hots: Juan M^a Legorburu Salaberriak, Amaya Garnica Anduezak, Esther Bloticario Fernandez eta M^a Lourdes Arano Izaquierdok, M^a Begoña Artola Berrondok eta Kiosko Bikale, S.L.k.

Eskaintzak irekitzeko 2007ko abenduaren 3ko aktaren arabera KIOSKO BIKALE, S.L.k eginiko eskaintza lehiaketatik baztertzea erabaki zuten, hain zuzen egungo kiosko titularrek osatzen dutelako eta lehiaketa honetako esleipendun surtatuz gero egungo emakidari uko eginez idatzirik aurkeztu ez duelako (baldintza-agirien 8. klausula).

Udal arkitektoak eta administrazio orokorrek teknikariak gai honi buruzko txosten bateratua egin dute, eta bertan, M^a Begoña Artola Berrondo andreari esleitzeko proposamena egiten dute, hain zuzen interes publikoak kontuan hartuta berak egin duelako eskaintzarik hoberena.

Lehendakaritza eta Barne Antolaketako Batzordearen proposamenez.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. **M^a Begoña Artola Berrondo andreari esleitzea** Diputazio plazan egunkariak eta aldizkariak saltzeko kioskoa jarri eta ustiatzeko emakida hogeitabost (25) urterako. Lehenengo urtean **3.326,70** euroko kanona ordainduko du, beti ere lehiaketa arautu duten baldintza-agiri ekonomiko-administratiboen arabera eta esleipendunak eginiko eskaintza kontuan izanik.



2. Esleipendunari **eskatzea** hamabost (15) eguneko epean, esleipen-jakinazpena jaso ondoko egunetik hasita, **750 euroko** behin-betiko bermea jartzeko.

3. Era berean, esleipendunari **eskatzea** hogeita hamar eguneko (30) epean, esleipen-jakinazpena jaso ondoko egunetik hasita, Udaletxera etortzeko kontratua egitera.

6. Proposamena: Errenteriako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoa desegitea.

Euskara Arloak aspaldidanik zeukan borondate politikoa eta zentzu horretan aurreikusten zuen herritarren euskara ezagutza eta erabilera normalizatzeko aurrera egin beharra zegoela. Horregatik, pasa den apirilean Euskarako teknikari-koordinatzaileak, Euskara Zerbitzuan eta Udal Euskaltegian dauden giza-baliabideak optimizatzearen, berrantolatze proiektua aurkeztu zuen.

Bestalde, Udal Euskaltegiko ikasleria, Autonomia Erkidego osoan bezalaxe, jaitsi da, eta beraz, hizkuntza normalizatzeko helburu eta estrategia berriak martxan ipintzea beharrezkoak dira.

Horrez gain, Udal Euskara Zerbitzuak herrian euskararen erabilera gehitzeko helburu berriei aurre egin die, eta horretarako, Euskaltegian "soberan" zeuden langileak baliatu ditu.

Herrian hizkuntza normalizatzeko helburu berriei aurre egitearren egitura sendoa eta nahiko ahalmendun bat sortzeko Udalaren baliabideak optimizatzea beharrezkoa da, eta horretarako Udalak?? bidezkoa jo du Errenteriako Udal Euskaltegia (fundazio publikoa) Udalaren Euskara Sailean integratzea. Eta ondorioz, euskalduntze-alfabetatzea eta euskararen erabilera sustatzeko atalak batu egingo lirateke.

Euskaltegiko langileekin negoziazioak eman dira, eta gehiengoak onartu du adostutako baldintzetan Udaleko langile-plantilan integratzea.

Udaleko Langileen Batzordeari gaiaren berri eman zaio.

Legeria: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85.bis.1.a artikulua, 57/2003 Legeak emaniko idazketaren arabera, abenduaren 16koa, Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriena, hala nola 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 85 artikulua eta ondorengoak, Tokiko Udalbatzen Zerbitzu-erregelamendua onartzen duena.



Euskarako teknikari-koordinatzaileak, 2007ko apirilaren 20an, Euskara Zerbitzua eta Udal Euskaltegia berregituratzeko memoria aurkeztu zuen.

Horrez gain, espedientean jasota daude gai honen inguruan eta negoziazioetan eginiko idatzi guztiak, hots, Euskara Zerbitzuko teknikari-koordinatzaileak 3007-11-22an eta 2007-12-05ean eginikoak, Euskaltegiko zuzendariak 2007-11-26an eginikoa (sarrera-erregistro zk.a: 15.538 duena), Euskaltegiko langileek 3007-11-28an eta 2007-12-11n eginikoak (sarrera-erregistro zk.ak: 15.707 eta 16.196 dituztenak), Euskaltegiko langileen ordezkariak 2007-12-07an eginikoa (sarrera-erregistro zk.a: 16.009 duena).

Giza Baliabide Saileko AOTk gaiari buruzko txosten juridikoa egin zuen 2007ko abenduaren 7an.

Udal kontu-hartzaileak gaiari buruzko txostena egin zuen 2007ko abenduaren 17an.

Errenteriako Udal Euskaltegia Fundazioaren Gobernu Batzarrak, 2007ko abenduaren 12an eginiko bilkuran, onartu zuen Fundazioa desegitea Udaleko Euskara Zerbitzuan integratzeko.

Udaleko Euskara Batzordeak, 2007ko abenduaren 12an eginiko bileran, aldeko irizpena eman zuen.

Lehendakaritza eta Barne Antolaketako Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Burgos jaunak (EA) adierazi du Eusko Alkartasunak, prozesu hau hasi zen une beretik, bultzatu zuela egin nahi zen aldaketa. Euren ustez onuragarria zen bai Euskaltegiko langileentzako bai Udalarentzako eta alfabetatzea nahi duen jendearentzako ere. Horrela, egin zituzten bilera guztietan argi eta garbi geratu zen alfabetatzeko ematen diren klaseen kalitatea eta klase-kopurua ez zirela murriztuko, beti ere matrikulek hala erakutsiz gero. Horrez gain, prozesu osoan beti informatuta egon dira, hots, bai Patronatuan hala nola ordezkari politikoekin afera hau Euskara batzordean ikusi duten bileratan. Era berean, langileen ordezkariekin izan dituzten bileran. Orain, kontuari amaiera emateko, afera bozkatuko eta konpromisoak jasotzen dituen idatzi bat onartuko dute, bere alderdiarentzat zuzenak eta bidezkoak direnak.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du hein handi batean adierazitako argudioekin bat datozelako proposamenaren alde bozkatuko



dutela. Eta prozesua hobetu zitekeenetik harutzago joanez, uste dute - Euskaltegiko langileen esku hartzearekin-, prozesu irekia, garbia eta demokratikoa izateko gutxiengo baldintzak bete dituela. Soilik Alkateari edo Gobernu Taldeari iradokitzen diote irakasleen klaustroak dioena gehiago baloratu dadin zuzendaria aukeratzeko garaian, hau da, ez dadila soilik mugatu izangaien zerrenda bat aukeztera, euren gogoz aurkeztu izan direnaz gain. Eta kargutik kentzeko garaian irakasleen klaustroa entzungo dela aitatzten den modu berean, Ezker Batua-Berdeak-ek eskatuko luke irakasleen klaustroa elementu garrantzitsua izatea zuzendaria aukeratzeko garaian.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du pozik daudela Euskaltegiko Patronatua Udaleko egituran sartzeko prozesua ondo amaitu delako. Bere iritziz, Udalbatza honek asko eztabaidatu duen kontua da, beraien taldeak hasieratik bultzatu eta azken aldera bere lagunari bideratzea tokatu zaiona hain zuzen ere. Gainera, modu honetan Euskara saila ere gehiago indartuko dela uste dute.

* Cano andreak (Oreretako EAE/ANV) adierazi du bat egitearen alde dauden arren, prozesu honetan aurka bozkatzeko aritu izan direla, eta gaur ere aurka bozkatzeko dutela. Horrela, prozesua atzeratu nahi zuten, hain zuzen, denen ekarpenekin zerbait osoagoa lortzeko. Horrez gain, txertatzea, euren ustez, bi aldeak hobetzeko izan behar du, beti ere Euskaltegiak ahalik eta hoberen funtziona dezan. Bestalde, kezkatuta daude administrariaren arazoarekin, izan ere, ez baitakite administrariaren lanaldia murriztuz ez ote den Euskaltegiaren egoera ahaulduko. Ondorioz, Ezker Batuko lagunek zuzendariaren kasuan aitatu duten moduan, eurek ere eskatuko lukete kontu hori zaintzeko, administrariaren eginkizunak eta lanaldia zehazten direnean. Lan-poltsaren arazoari dagokionez, berriz, esan diete lan-poltsa ekainera arte mantenduko dela eta gero handik aurrera ikusiko dela kontua nola dioan. Horrek ere, neurri batean bederen, kezkatzen ditu. Bestalde, langileen lan-baldintzak hobetu dira, eta horrekin oso pozik daude, baina ikusten ari dira hori azken urteetako eskaera zela eta oraingo prozesuan eman dela. Azken finean, zalantzak sortzen dizkie ere, ez dagoelako teknikariaren inolako posizionamendurik. Taknikariak azaldu du alde dagoela, baina ez momentu honetan. Bera, indefenizioak direla eta, kezkatuta zegoela adierazi zuen, eta horrek ere, zalantza puntu bat sortzen die euri.

* Oficialdegui jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du, hemen esan den moduan, prozesua luzea izan dela. Bera Patronatuaren bilera pare batean egon da, eta prozesuak, gutxi gora-behera, urte bat eta erdi iraundu du. Eta ez du ulertzen gehiago atzeratzeko eginiko eskaria, are gutxiago langileriaren gehiengoak bat egiteko eskatu



duenean. Zalantzarik gabe, langileekin harremanak edukiz, elkarlean eta zuzendariarekin laguntza osoarekin egin da, esan du. Horregatik, gaitzesten du azken aurreko bileran Enpresa batzordeko ordezkariak aurkezturiko idazkia. Bertan Udalbatza eta zuzen zuzenean zuzendaria iraintzen zituen, eta hori, jakin dugunez, langileriaren gehiengoa bere alde eduki gabe egin du, gaineratu du..

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du datua garrantzitsua dela. Ez da txantxa -dio-, denek dakiten moduan, prozesu hau interesdunek eurek eskatuta hasi zela. Garai honetan, bere ustez, eztabaida asko eman dira. Bertan, teknikariak, zuzendariak, ordezkari sindikalak, irakasleek, etab.ek esku hartu dute. EAEk adierazi dituen zalantzen inguruan, uste du, zuhurtasunez jokatzuz eman dizkiotela hiru hile administrariak zenbat lan izango duen ebaluatzeko, hots, zenbat denbora dedikatu beharko duen Euskaltegiari eta zenbat Udalari. Horrez gain, kontratu berriak, orain arte bezala, beharren arabera egingo dira. Beharra badago, matrikulak eta ikasleak kontuan hartuta egingo dira kontratuak, esan du. Udalak ez du orain artean Euskaltegia egiten ari zen lana murriztu, moztu eta gutxieteko inolako asmo, animo eta intentziorik, gaineratu du. Eta berriro esan du ekimena ez dela Udalarena izan, langileena beraiena baizik. Bera pozten da proposamena onartu eta bereganatu dutelako, argi baitago, besteak beste, langileentzako hobekuntza ekonomikoa suposatzen duela. Eta uste du EAEk ere alde bozkatu beharko zukeela, nahiz eta hori asko eskatzea izango litzakeela usten duen.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PN, EA, PP, Ezker Batua-Berdeak) eta aurkako 6 botorekin (Oreretako EAE/ANV),

E R A B A K I D U

LEHENENGO. Onartzea Erreterriako Udal Euskaltegia Fundazioa Publikoa desegitea eta estatutuak baliogabetzea, 1992ko maiatzaren 28ko osoko bilkuran behin-betikotasunez onartuak eta 2003ko azaroaren 28an aldatuak. Ondorioz, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko zerbitzua Erreterriako Udalak bereganatu eta zuzenean kudeatuz emango du.

BIGARREN. Erreterriako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoko lan-plazak eta lan-postuak (aurtengo azaroaren 5ean Zuzendaritza Batzordeak onartua) Erreterriako langile-plantilan eta lanpostu-zerrendan sartzea, beti ere osoko bilkura honetan bertan onartzeko jarriko den lanpostuen zerrendan jasotako betekizun, baldintza eta ezaugarriekin.



HIRUGARREN. Errenteriako Udalera transferitzea Errenteriako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoko funtzionarioak, hots, espedientean jasota dagoen I. eranskinean adierazten direnak, beti ere lehendik onarturiko lan-baldintzak eta transferitzen diren unean antzintasun-kontzeptuz dituzten eskubideak errespetatuz.

LAUGARREN. Trebatzaile-irakasleen lan-ordutegia, euskalduntze-lanetan ari ez direlarik, bulegoetako udal langileen berdina izango da.

BOSGARREN. Erabakitzeke geratu da administrariak Euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan edo beste zerbitzuetan egingo duen lanaldia, izan ere, berori integrazioa emanda 3 hile pasatakoan -gaiari buruzko azterlana egiteko balioko duena- egingo baita.

SEIGARREN. Udalaren aurrekontuan sartzea Errenteriako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoko erakunde autonomoaren aurrekontu-dotazioak.

ZAZPIGARREN. Errenteriako Udalak subrogatuko ditu indarrean dauden kontratuetatik eta Errenteriako Udal Euskaltegia fundazio Publikoan dagoen bitarteko funtzionarioaren izendapenetik eratorritako eskubide eta betebeharrak, beti ere espedientean jasota dagoen II. Eranskinean jasotzen denaren arabera.

ZORTZIGARREN. Akordio honen 1. atala jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea hogeita hamar egunez. Epe horretan inork ez balu erreklamazio edo iradokizunik egingo, atal hori behin betikotasunez onartuta geratuko litzateke.

7. Proposamena: Errenteriako Udalak 2008an izango duen lanpostu zerrenda onartzea.

Funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian jasota dagoenaren arabera, "*Toki Administrazioko langile ororen lanpostuak eta langile-plantilak urtero Aurrekontuan jasotzea derrigorrezkoa da (FPLAren 14.5 artikulua).*

Kontuan izanik onartzeko proposamen honetako Lanpostuen Zerrendak sortuko dituen gastuak bat datozela aurtengorako aurreikusitako langile-plantilarekin, zeina onartzeko jarriko baita.

Kontuan izanik halaber, lanpostuen zerrendak, izaera dinamikoa duenez, maiz eguneratu behar dela, hain zuzen Udalaren antolamendu-beharren arabera izan dadin.



Aldaketa horiek horretarako eginiko memorian jasota geratu dira, eta halaber, espedientean.

Bestalde, Lanpostuen Zerrendek, Euskal Funtzio Publikoko Legearen 15. Artikulua dela eta, derrigorrezkoa dute zera jasotzea: *lanpostu bakoitzaren izen zehatza, zenbat lanpostu diren, zein sailera dauden izendatuak, prozesua zein Administrazioko langileei dagoen irekia, zein talde edo kidegokoak diren, betetzeko modua, lanean jarduteko eskatutakoa, ordainsariak, bakoitzak izendatuta daukan hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarekin.* Horrezaz gain, adierazi behar da funtzionarioen lanpostuak baldin badira, zera: *8tik 30era zein zenbakitan dagoen sailkaturik, betetzeko sistema eta bararizko osakina.*

Giza Baliabide Saileko AOTk 2007ko abenduaren 7an eginiko txosten juridiko ikusi dute.

Araudi horretan xedatutakoaren arabera, hala nola ELTBren 126.4 eta 127 artikuluetan, Euskal Funtzio Publikoko Legearen II. Tituluaren I. Kapituluan eta, osagarri gisa, aplikatu litekeen estatu-araudia.

Lehendakaritza eta Barne Antolaketako Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Queralt jaunak (Oreretako EAE/ANV) adierazi duenez, puntu honek eta hurrengoak zerikusi zuzena dutenez, bietaz mintzatuko da. Bere ustez, asunto honetan kudeaketa kaskarra egin da eta egiten ari da. Eurek hutsune dezente ikusi dituzte, izan ere, une honetan betetzeke diren lanpostuak dezente baitira. Uste du batzuk ezintasunagatik izango direla, baino beste batzuk nahita egiten direla pentsatzen dute. Esaterako, nahiko esanguratsua da HIZ (SAC) delakoa. Duela urte dezente sortu zen lanpostu hau, baina oraindik ez da bete, esan du. Eurek ez dakite zergatik den. Ondoren, zer gertatzen da operario zenbaitekin, galdetu du. Lanpostu horiek bete gabe daude eta noizean behin Oarsoaldean praktikak egiten ari direnekin betetzen dira, gaineratu du. Arotza-plaza bat ere bete gabe dago; hainbat udaltzain lanpostu ere bete gabe daude. Horrez gain, amortizazio batzuk ere ematen dira eta eurek ez dakite zergatik egiten diren. Ondorioz, kudeaketa kaskar honekin ez daudela batere ados, errepikatu du. Euren aburuz gauzak hobeto egin daitezke, are gehiago teknikariek proposamenak egiten dituztela ikusita, baina, euren iritziz, Gobernu Taldeak ez du jaramonik egiten. Horren dibide da, erdaraz jaso duten txostenean esaten dena: "Hiri-zainketarako arduradun teknikariak eskatu du lorezaintzako bi langile-plaza



sortzeko". Baina, hasiera batean behintzat, proposamen hau ez da onartu, eta ondorioz, berak zera galdetzen du: nork jakin ditzake Udaleko beharrak zeintzuk diren bertako teknikari eta langileak baino hobeto? Hori horrela, kontu honek pittin bat harrituta dauzka, hain zuzen zerbitzu honi dagokion partida ehun mila eurotan igo delako. Igo da, baina ez lanpostuak sortzeko, zerbitzu horiek kanpora ateratzeko baizik, esan du. Horregatik, gustatuko litzaieke jakitea zeri erantzuten dien proposamen horiek. Ildo horri jarraiki, bere taldeak langileen osasuna eta segurtasun baldintzak kontrolatzeko xedez teknikari-plaza bat sortzeko proposamena egin zuen, baina, alaber, atzera bota zieten. Gainera, jakinarazi du udal eraikinek ez dutela larrialdirako planik eginda. Behar hori -dio- enpresa baten bidez estaltzen da, eginkizun hori egiteagatik hileko 10 ordu fakturatuz. Euren ustez, lanpostu

hori berehala sortu behar da. Izan ere, larrialdi-plangintzarik ez dagoenez, zorigaitzaren bat gertatuz gero, nondik aterako lirateke, galdetu du. Berak ez daki norbaitek badakien zer egin behar den suteran bat gertatuz gero. Horrela, proposamenean akats asko ikusten dituztenez, aurka bozkatuko dutela, esan du.

* Oficialdegi jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du Oarsoaldeari buruz egin den aipamenaren inguruan, Udaleko hainbat lan-plantilatan sor litezkeen hutsuneen ordezkatetek ez dutela zerikusirik Oarsoaldearekin sinatzen diren hitzarmenekin.

* Queralt jaunak (Oreretako EAE/ANV) uste du Oarsoaldetik datozen langileek Udalak betetzen ez dituen lanpostuetako eginkizunak egiten dituztela.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), EAeko ordezkariek esandakoaren inguruan, adierazi du onartzen duela, Herritarrei Kasu egiteko Zerbitzuari dagokionez, orain artean ez dutela jakin nola bideratu; denbora gehiegi daramatela irtenbidea bilatu nahian eta oraindik ez dutela formularik aurkitu. Errua onartzen du, "inor ez da perfektua eta horregatik ez naiz lotsatzen", esan du. Afera bideratuko dutela itxaroten du, baina horretarako talde eta zinegotzi ororen proposamenak ikusteko prest daude. Eta berriro dio, hor daukala arantza hori sartuta, Herritarrei kasu egiteko Zerbitzu on bat abian ipiniz ateratzea espero duena. Kritika eta erantzukizuna bereganatzen dituela errepikatu du. Oarsoaldeari dagokionez, berriz, uste du Queralt jaunak (Oreretako EAE/ANV) afera hori behar ez bezala bideratuta duela. Izan ere, Oarsoaldeak Udalak egiten duen langileria-politikaren oso ezberdina jarraitzen baitu. Adierazi duenez, Oarsoaldeak integrazio-politika egiten du eta diruz lagunduriko proiektu eta programa zenbait ditu. Horietako zenbaitek % 100eko diru-laguntza izaten dute Enplegurako Euskal Zerbitzuak, INEMek, Europar Batasunak,



etab.ek emanak, gaineratu du. Proiektu zenbaitetarako langabezia daudenak kontratatzen dituzte, baina oro har, hainbat arrazoiengatik lanik ez duten lagunak prestatzen dituzte. Horrela, ordutan zuzen ibiltzeko, kurrikuluma egiten, etab. erakusten dieten pertsonak izaten dira. Lanpostu horiek, sekulan, ez dituzte betetzen Udalak izan ditzakeen hutsuneak. Hori horrela da, non behin baino gehiagotan, Oarsoaldeak eginiko proposamenen aurrean, Langileria Saila eta Gizarte Zerbitzuaren artean eztabaidak sortzen baitira, zeinek, askotan, Hiri Mantentze Saileko lanak makaldu besterik ez baitute egiten. Eta berriro dio, sekulan, egoera edozein izanda ere, Oarsoaldearen bidez kontratatuko langileek ez dituzte egin izan Udaleko lanpostuei zegozkion lanak. Bestalde, berak ere badaki galderak egiten -ez ditu horregatik kritikatzeko-, baina Sail guztiek (Lorazaintza, Kontuhartzaitza, Udaltzaingoa, Ingurumena, etab.), denek, normala den moduan, egin nahi dituzte gauzak, ahalik eta hobekien egin nahi dituzte eta horretarako eskatzen dute. Gero, eskaera horiek, beharren arabera, aztertu egin behar dira, esan du. Jakin badaki, alde batetik, lehentasunen arazoa izan daitekeela; badaki, halaber, beste pertsona batzuk erabaki beharko baluteke, beste lehentasun batzuk izango zituzketela. Horretan ez dauka zalantzarik, baina kontua dagoen bezala dago, gaineratu du. Eta eskatzen hasiz gero, berak ere baliabide gehiago eskatuko luke, baina usaian eskatzen duenari ezetz esaten zaio, esan du. Hauxe da kontua, baliabideak behar direla, zerbitzuak, programak, kontratazioak, etab. egin ahal izateko, eta hori herritar guztien bizi-kalitatea hobetzeko xedez, nabarmendu du. Era berean, galdetzen zenuten ea nola igo den aurrekontua lorazaintzako zerbitzuak ez badira igo. Erantzuna oso erraza da: Errenterian gune berde berriak daude, eta horietako belarra moztu behar da, eta horrek partida hori igoarazten du, esan du. Bestalde, badaki zerbitzuak Udalez kanpoko langileekin egiteak beligerantzia eragiten duela. Bere aburuz, afera hau ere filosofia kontua da, eta Gobernu Taldea den bezalakoa den bitartean, irizpide horri jarraituko diote, eta hori lehenagoko agintaldietan egin izan dute. Berak dioenez, zerbitzuak kanpora ateratzearen alde edo aurka egon liteke, alabaina uste du EAEk gobernatzeko duen lekuetan ere zerbitzuak Udalez kanpoko jendearekin egiten dituztela. Berak dioenez, udal kudeaketa nahiko konplexua da, eta ondo funtzionatu ahal izateko zerbitzu zenbait kanpora ateratzea beharrezkoa da, nahiz eta berriro dion, ez duela komentatzeko asmorik, hori ezinezkoa dela uste duelako.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, lan-arriskuak prebenitzeko Udala aholkatzen duen enpresak hilean 10 ordu sartzen dituela esan dela, baina berak esan behar du 10 ordu astean direla. Bestalde, etxe honetako larrialdi-plana amaitua dago, hots, zuzenketa batzuk egin ziren eta orain akats posibleak antzemateko eta



horiek zuzentzeko simulakroa egitea bakarrik da falta, gaineratu du. Bere ustez urtarrilean egin ahal izango dute. Horrela, lehenengoa abisatuta egingo lukete, eta gero abisutu gabe errepikatuko. Ondoren, eraikin hau txikia dela esan du, eta beraz, ez du uste Queralt jaunak (Oreretako EAE/ANV) kezkatu behar duenik. Izan ere, larrialdiren bat gertatuko balitz, denek badakite nondik atera behar den, nabarmendu du. Ziurraski -dio- askozaz zailagoa da jakitea Kaputxinoetako edozein etxaditik nondik atera behar den, nahiz eta etxebizitza pribatuek ez duten zergatik izan behar larrialdiko plan bat. Era berean, Hiri Mantentze Sailerako larrialdiko plana nahiko aurreratua dute. Egia da -dio- oso geldo ibili direla eta aurreratuagoa egon beharko zukeela, baina oso konplikatu da, gaineratu du. Solairu bakoitzerako norbait arduradun egitea zaila izan da, eta ikusi egin beharko dute zer gertatzen den simulakroa egiten dutenean, hau da, horretarako izendatuak, benetan hala diren, simulakroa egiten denean, esan du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, EA, PP), aurkako 6 botorekin (Oreretako EAE/ANV) eta 2 abstentzios (Ezker Batua-Berdeak),

E R A B A K I D U

1. Errenteriako Udaleko Lanpostuen Zerrenda **onartzea**. Hots, espedientean jasota dauden funtzionarioena, lan kontratu finkodunena eta behin-behineko langileena.
2. Lanpostuen Zerrenda **argitaratzea** -aurrekontua behin-betikotasunez onartu ondoren-, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, (apirilaren 18ko 781/1986 EDaren 127. artikuluan xedatutakoa betez), eta halaber, Udaletxeko iragarki-oholean.
3. Aipatu artikulua hori betez, Lanpostuen Zerrenda, langileria-plantila eta Aurrekontuaren laburbilduma **bidaltzea** Estatuko Administrazioari eta Euskal Autonomia Erkidegoari.

8. Proposamena: Errenteriako Udalak 2008an izango duen langile-plantila onartzea.

Udalbatzak, 2007ko urtarrilaren 26an, 2007ko aurrekontuaren behin-betiko onespren-ematea zela eta, onartu zuen Udal honetako langileria-plantila.



Langileria-plantilari buruz 2008rako behar berrien inguruan eginiko txostenak ikusi dituzte, espedientean jasota daudenak.

Udalbatzari Udal Euskaltegia Fundazioa desegiteko proposamena egiten zaio, eta beraz, gaur egungo langileria-plantila osoa Udalekora pasatzeko.

Era berean, 2007. urtearekiko 2008rako langileria-plantilan egin asmo diren aldaketen azalpen-memoria jasotzen da.

Giza Baliabideko teknikariak egindako txosten juridikoa ikusi dute.

Aplika dakioken legerian xedatutakoa kontuan izanik.

Lehendakaritza eta Barne Antolaketako Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Murua jaunak (Oreretako EAE/ANV) adierazi du eurek puntu honetan zalantza bat dutela, eta bozkatu baino lehen hori argitzea nahiko lukete. Izan ere, jaso duten txostenean lanpostu guztiak diruz hornituta egon behar dutela irakurri dute, eta proposamenean ikusi dute lanpostu bat diruz hornitu gabe geratzen dela. Eta beraz, ez bada goian aitatzen den moduan egiten, pentsatzen dute proposamena legearen aurkakoa izango litzakeela.

*Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez, zein lanposturi buruz ari den zehatz-mehatz ez baldin badaki ere, proposamen guztiak txostenez osatuta egiten direla, eta lanpostu batek ez badu diru-zuzkidurarik, horrek esan nahi du ez dela beteko.

* Murua jaunak (Oreretako EAE/ANV) esan du teknikariak lanpostu horrentzako, Udalbatza batean hala erabaki zelako, ez dagoela diru-zuzkidurarik esaten du. Eta eurek txostenean plaza guztiek euren diru-zuzkidura behar dutela ulertu dutenez, hori hala den edo ez argitzea nahi dute.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) berriro esan du bete asmo diren lanpostu orok diru-zuzkidura behar du, eta bateren batek ez badu diru-zuzkidurarik, hori betetzeko asmorik ez dagoelako izango da, esan du. Azalpenak eskatu behar badira, bere garaian, eskatu dira, baina bere irudiko gaiak nahiko informazio eman da eta bozkatzeko jarriko du.

Mintzaldiak amaitutakoan.



Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, EA, PP), aurkako 6 botorekin (Oreretako EAE/ANV) eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

E R A B A K I D U

LEHENIK. Oraingo langile-plantila ondorengo eran aldatzea:

A) *Ondoko lanpostuak sortzea:*

1. Funtzionarioak:

- Administrari 1, C sailkapen taldean sartua eta Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrazio azpi-eskalakoa, hain zuzen Udal Euskaltegiko langileak Udaleko langile-plantilara pasa direlako.
- 14 irakasle, B sailkapen taldean sartuak, eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpi-escala teknikokakoa eta erdi mailako teknikarien klasekoak, hain zuzen Udal Euskaltegiko langileak Udaleko langile-plantilara pasa direlako.
- Laguntzaile teknikari 1, C sailkapen taldean sartua eta Administrazio Bereziko eskalakoa, azpi-escala teknikoa, laguntzaile teknikoko klasekoa. Informatikan espezializatutako lanpostu teknikoari dagokiona.
- Udaltzaingoko azpi-ofizial 1, C sailkapen taldean sartua eta Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Bereziko azpi-eskalakoa, Udaltzain eta Laguntzaileen klasekoa.

B) *Ondoko lanpostuak kentzea:*

1. Behin-behineko langileak:

Herritarrak Babesteko zuzendaria, gai horri buruz eginiko txostenari jarraiki.

- SV-ES talde politikoaren idazkaria
- Oreretako EAE-ANV talde politikoaren idazkaria
- EAJ-PNV talde politikoaren idazkaria
- IU-EB talde politikoaren idazkaria



- PP talde politikoaren idazkaria
- EA talde politikoaren idazkaria

BIGARREN. Onartzea 2008rako Udal honetako langile-plantila organikoa eta lanpostuak, espedientean jasota dagoena.

HIRUGARREN. Aurrekontu-dataziorik gabe uztea langile-plantilan dagoen Udaltzaingoko 1. mailako agente plaza, hain zuzen datorren ekitaldian okupatzea ez dagoelako aurreikusia.

LAUGARREN. Argitaratzea langile-plantilari dagokion testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean apirilaren 18ko 781/1986 EDaren 127. Artikuluan xedatutakoari jarraiki, beti ere 2008rako aurrekontua behin-betikotasunez onartu ondoren, eta halaber, Udaletxeko iragarki-oholean.

BOSGARREN. Bidaltzea onarturiko langile-plantilaren kopia EDaren 127. artikuluan adierazten diren erakundeei, beti ere komunikabide ofizialean argitara eman ostean.

9. Proposamena: Errenteria Musikal Udal Patronatuak 2008an izango duen lanpostu zerrenda eta langile-plantila onartzea.

Udalbatzak onar dezan Errenteria Musikal Udal Patronatuak 2008an izango duen lanpostu-zerrenda eta langile-plantila onartzeko proposamena egin du.

Giza Baliabide Saileko AOTk gaiari buruzko txostena egin zuen 2007ko abenduaren 12an.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, EA, PP, Ezker Batua-Berdeak) eta 6 abstentzios (Oreretako EAE/ANV),

E R A B A K I D U

- Onartzea Errenteria Musikal Udal Patronatuak 2008an izango duen lanpostu-zerrenda eta langile-plantila, hots, espedientean jasota dagoen bezala.

10. Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitza Udal Patronatuak 2008an izango duen lanpostu zerrenda eta langile-plantila onartzea.

ERRENTERIAKO UDALA



**AYUNTAMIENTO DE
ERRENTERIA**